Olabide Ikastola. Telf:945150640. Posta saila 571. 01080 Vitoria-Gasteiz. e-mail: posta@olabide.com

# GURE GAUZAK 20

Ikastolako aldizkaria 2003ko apirila



OLABIDE IKASTOLA

## Udaberria, odol berria







# MATRIKULATZEAREN IGOERA 2003-2004

Lerro hauen bitartez, OLABIDE Ikastola osotzen dugunok matrikulatze epe ofizialaren barruan jaso izan ditugun emaitzen berri eman nahi genizueke, guztiontzat berri pozgarria izan baita matrikulatze horietan gorakada egitea, eta poztasun hori zuekin elkarbanatzea da gure desioa. Orain dela hiru urte matrikulatzeak behera egin zuenean, kezka larria piztu zen gure artean, neurri anitzak jarri izan genituen martxan egoeraren norabidea aldatzeko asmoz, eta orduko tendentziak zirenak aldatzen joan zezaten.

Orain dela hiru urte beraz bi urteko gela bat prestatzea bilakatu zen gure erronka, datorren ikasturterako hirugarren gela bat ere zabalduko dugularik aurten beti ere hiru urteko ikasleen matrikulatzeetan gorakada nabaria jasoaz.

Beraz hau honela izanda, adierazi behar da OLABIDE Ikastolak zabaldu dituen bideak eta emaitzak gure ilusioak berriro indartzen dituela, euskal kultura eta euskara zabaltzeko jarduerak bultzatuak sumatzen baititugu.

Esker mila beraz OLABIDE ikastola eratzen dugun guztioi, zuen sentipen eta irudi zabaltzeak beraien islara ere dutelako emaitza hauen lorpenean.

A través de estas líneas, todos los que formamos parte de OLABIDE Ikastola os queremos informar de los resultados obtenidos dentro del plazo oficial de matriculación, ya que para todos es una ilusionante noticia la subida experimentada en las matriculaciones, y es nuestro deseo compartir esta alegría con vosotros. Cuando hace tres años la matriculación descendiió, entre nosotros surgió una gran procupación. Decidimos poner en marcha múltiples medidas con la intención de reconducir la situación para que, lo que hasta entonces eran meras tendencias, fueran cambiando.

Hace tres años la creación de un grupo de dos años era nuestro objetivo, y para el próximo curso ya hemos conseguido crear tres. Al mismo tiempo la matriculación de los alumnos de tres años ha experimentado una fuerte subida.

Por lo tanto, tenemos que manifestar que las vías que ha abierto OLABIDE Ikastola y los resultados, han conseguido fortalecer de nuevo nuestra ilusión, ya que sentimos que están siendo potenciadas actividades para expandir la cultura y la lengua vasca.

Gracias a todos los que constituimos OLABIDE Ikastola, ya que la expansión de vuestro sentmiento y vuestra imagen también tienen reflejo en la consecución de estos resultados

| | IKASTURTEAK / CURSOS | | |
|---|---|---|---|
| | 2001-2002 | 2002-2003 | 2003-2004 |
| HH 3 (2 URTE) | 16 | 34 | 48 |
| HH 4 (3 URTE) | 78 | 84 | 95 |



# OLABIDEKO ESKIALARIAK

Kukuak jadanik jo duen honetan, gure Batxilergoko 1 eta 2 mailako ikasle, lau irakasle ausarta eta gure zuzendaria bere semearekin, bat egin zuten ihauterietako zubi luzearen bukaeran (martxoak 3 eta 4) ez ohiko plana egiteko elkarrekin eskiatzera joanez Luz Ardidenera.

Ilusioz beterik, hankak prestaturik nekatzeko aldapak behera, iritsi ginen gure estaziora. Bidaia osoa euripean bete ondoren, galdera bakarra genuen buruan :Eguraldia aldatuko ote da han goian ?

Gure kezka honen erantzuna pisten atarian argitu zen. Eguraldia aldatu zen, baina txrrera, zoritxarrez. Eguraldi madarikatuak ez zuen batere lagundu lehenengo egunean eta bi ordu besterik ez, aritu ginen eskien gainean. Baten batek ez zituen ezta ere ordu hauek bete, bere orkatila ez zitzaiolako asko iraundu ( zaindu Mikel !!! ).

Bazkaltzeko egin genuen geldiunean guztiok batera (behingoz) ohiukatu genuen... goazen hotelera!!! Blai eginda hasi ginen jeitsiera Lourdeserantz gure hotel berotsuaren bila.

Dutxa eta arropa lehorraren eraginez indarrak berpiztu genituen eta afaldu ondoren eman genituen egun luzearen azken ord-uak hizketan lagun tartean.

Bigarren egunerako, inork espero ez zuenaren kontra, eguraldia damutu egin zen egindako kalteaz eta egun zoragarria eskeini zion Olabideko tropari. Hantxe asetu zuen eskiatzeko egarria bertaratu orok. Bi pertsonen kolpeak eta baten sukarra aipatzeaz aparte, nahiko txukun joan zen dena.

Zorionak denoi eta eskerrik beroenak Marije González, Ainhoa Elordi, Gentzane Martín, Silvino Baigorri eta Iñaki Zubeldiari egin-dako eginahalagatik.

Bejoindeizuela eta hurrengo bat arte.





# GABONAK

Pasa den hiruhilabetean DBH 4.mailako ikasleek, erlijio ikasgaian, izugarrizko lana egin zuten abenduaren 21ean Belen "viviente" bat prestatzeko.Ikasleek sorturiko ideia bati esker, berehala irakaslearen eskutik txapelketa bat antolatu zen talde bakoitzak bere belena sor zezan.

Belenean parte hartzen duten pertsonaia guztiak antzeztu behar ziren, ardiak barne, noski!. Horretaz aparte, gabon kanta bat prestatu behar zuten, ausartenak bertsotan ere aritu ziren.

Ikasleen partehartzea ezin hobea izan zen, eta esan beharra dago ederto pasatu genuela. Hori ikusita, epaile mahaiak lau taldeei saria ematea erabaki zuen.

Hau guztia frogatzen duten argazkiak hemen dituzue






Alumnos y alumnas de 4º de ESO en la representación del Belen Viviente que prepararon en las clases de religión.

## GABONETAKO TXAPELKETAREN IRABAZLE

Alavesak antolatutako futbol 5 Gabonetako txapelketan,
Olabide Ikastolako taldea irabazlea izan zen.
Finala abenduaren 30an izan zen.
Hona hemen gure mutilak eta euren entrenatzailea.





En el Torneo de Navidad de fútbol 5 organizado por el Alavés,el equipo de Olabide Ikastola quedo como absoluto vencedor.
La final se celebró el 30de diciembre.

Mikel Vesga, Oier Iriarte, Josu Extramiana, Adrian Angulo, Mikel Ortueta, Mikel Orueta, Ander Riaño eta Jon Gayarre

## LITERATUR TXAPELKETA

Oier Llinás eta Irantzu Martínez de Aramaiona, 1go batxilergoko ikasleak, Santa Maria Katedrala Fundazioak antolatutako I literatur txapelketaren irabazleak izan ziren. Oierrek 1go saria eskuratu zuen "Koblakariaren sorginkeria" ipuinarekin eta Irantzuk bigarrena ( "Eta orain, zer?")

Santa Maria katedralari erreferentzia zuzena eginiko 100 lan aurkeztu egin ziren. Sariak Rosa Regas idazleak emandako hitzaldi baten ondoren banatu ziren.

Ipuin hauek irakurtzeko interesa duzuen guztiok eskuragai izango dituzue gutxi barru.

Zorionak eta horrela jarraitu!

Oier Llinás e Irantzu Martínez de Aramaiona, alumnos de 1º de Bachiller, fueron los ganadores del concurso literario organizado por la Fundación Catedral de Santa María. Oier obtuvo el primer premio con el cuento titulado “Koblakariaren soginkeria” e Irantzu recibió el segundo premio (“Eta orain, zer?”).

Se presentaron más de cien trabajos que hacían referencia directa a la catedral. Los prenmios fueron repartidos por Rosa Regas.

Todos los interasados en leer estos dos cuentos tendréis esa oportunidad en breve.

## IKASLE GORREK DITUZTEN ARAZOEI BURUZKO JARDUNALDIAK

En febrero, de la mano de ASPASOR (Asociación de Padres de Sordos), se celebraron unas jornadas sobre los problemas que los alumnos sordos tienen en su vida diaria. Una alumna de DBH, Ania Elorza, tomó parte en ellas como conferenciante. Ella misma nos resume el contenido de dichas jornadas:

*Joan zen otsailaren 26an, Duranako Ikasbidea Ikastolan hitzaldi bat eman genuen bi neska gor eta hirurok. Hitzaldia, nola ez, gorrei buruz zihoan, ASPASOR erakundearen eskutik. Bertan, gorrekin nola hitz egin (ondo ahoskatuz, keinuak erabiliz,...), zeintzuk diren gure zailtasunak eguneroko bizitzan (pertsonekin komunikazioa, telebista, klasean,...) azaldu genien eta azkenik gure banakako istorioari buruz hitz egin genuen. Ekintza hau DBH eta Batxilergoko lehenengo mailan gauzatu zen, goiz osoan zehar luzatuz.*
*Hitzaldi hau hainbat ikastetxetan egiten ari den proiektu baten atal bat da. Urtero erlijioko irakasgaian gai desberdinei buruzko proiektuak prestatzen dituzte, eta aurten Paraguayen gorrentzako eskola berezi baten eraikuntza bultzatzeko asmoz ekintzak antolatzen ari dira. Eta hemen sartzen da gure hitzaldia. Honek ikasleek gorren mundua gertutik ikusteko eta gure arazoez kontzientzia hartzeko balio izango du.*
*Hurrengo hilabetean hitzaldiak beste hainbat eskolatara zabalduko dira, Samaniego eta Koldo Mitxelena ikastetxera hain zuzen ere.*

Otsailean, ASPASORen eskutik (Gorren Gurasoen elkartea), ikasle gorrek bere ohiko bizitzan dituzten arazoei buruzko jardunaldi batzuk antolatu egin ziren. Hauetan, gure ikasle batek , Ania Elorzak, parte hartu zuen hizlari moduan. Hona hemen bere hitzez azalpena:

# XX ESKOLARTEKO KOMIKI LEHIAKETA




Caja Vital Kutxak antolatutako XX Eskolarteko Komiki Lehiaketan, DBH 4. mailako ikasle batzuek (Edurne Lete, Jon Fdz. de las Heras, Aritz Pérez, Ander Rodríguez, Maite Muñiz eta Xabier Ruiz de Ocenda), taldekoen atalean, lehenengo saria lortu izan dute.

Ikus dezakezuenez galipota da komikiaren gaia, eta hemen frogatuta geratzen da ikasle hauek marrazkirako dituzten dohainak eta trebesiak.

*Los alumnos de 4º de ESO, Edurne Lete, Jon Fdz. de las Heras, Aritz Pérez, Ander Rodríguez, Maite MUñiz y Xabier Ruiz de Ocenda) obtuvieron el primer premio en el apartado de grupos en el XX Certamen Escolar de Cómic organizado por la Caja VItal.*

*EL galipot ha sido el protagonista y como podéis ver, aquí quedan probadas las dotes para el dibujo de nuestros alumnos.*

## DBH 2B LHra

Euskara mintegitk bultzatuta, aurten gure DBH 2.mailako ikasleek, LHko ikasleei bisita berezi bat egin zieten, lehenengoek prestatutako narrazioak besteei kontatzeko asmoz. Hona hemen ikasle hauen azlpena:

*Pasa den trimestrean, LH 2Bko neska-mutilengana joan ginen, guk euskarazko klaseetan prestatutako ipuinakantzeztera. Kontatutako ipuinak gustatu zitzaizkiela iruditu zitzaigun, parreak bota zituzten eta. DBH 2.mailako ikasle guztiak joan ginen hara, hala eta guztiz ere, gure argazkia bakarrik irten da, hoberen atera dena izan baita.*

Mireia Calvoecheaga
Henard Selles



Impulsado desde el departamento de Euskara, los alumnos/as de 2º de ESO hicieron una visita especial a los alumnos/as de Primaria, para leer las narraciones realizadas en clase. Dos alumnos nos lo cuentan.



























# HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

## Agate Deuna eguna

Urtero bezala , aurten ere Agate Deunaren eguna ospatu genuen otsailaren 4an, horretarako aurrez prestatutako abestia makilen laguntzaz abestu genuen Olabideko idazkaritzan, beranduago Lehen hezkuntzako ikasleekin bat eginez eta eguraldiak laguntzen ez zuenez Alberdi Etxeko aretoan batu ginen tradizio handiko ekintza den hau burutzeko.

*El día 4 de frebrero festividad de Santa Agueda los alumnos/as de Educación Infantil, cantaron la tradicional canción acompañando el ritmo con las makilas, primero nos reunimos frente al salon de actos de Olabide, para posteriormente unirnos a los alumnos/as de Educación primaria en el areto de Alberdi, estas dos actuaciones culminaban la preparación durante las semanas anteriores de tan tradicional celebración.*

## Txintxiburduntzi eta inauteriak

Era berean otsailaren 27, ostegun gizen eguna eta otsailak 28 inauterien ospakizun egunak, sekulako arrakasta izan zuten ikasle txikien artean, horrela, ostegunean txistorra usaina zen nagusi alberdiko pasabidetan, bertan andereño eta maixuek sukaldari bihurtuta txistor goxoak prestatu zituzten haurrentzat, baita hurbildu ziren Olabide beste nagusientzat. Bestalde eta inauterien atarian egonda ostiralean, mozorroak ziren nagusi Alberdin, irakasleak pailazoz mozorroturik barre algarak sortarazi zituzten umeen artean, dantzak eta argazkiak beraien lekua izanik, azkenik eta Lehen Hezkuntzako irakasleak gonbidatuta, Haur Hezkuntzako txikiak aukera izan zuten nagusiek egindako mozorro eta dantzen koreografiaz gozatzeko, mila esker.

*Así mismo, los días 27 y 28 de febrero celebramos el jueves de lardero y el día de carnaval respectivamente. Así el jueves nos improvisamos de cocineros y ofrecimos pintxos de chistorra a los mas pequeños así como a todos aquellos mayores que hasta el pasillo de Alberdi se acercaron. Al día siguiente los disfraces eran el elemnto a tener en cuenta, las andereños y maixus disfrazados de payasos hicieron reir a los mas pequeños para posteriormente encaminarnos hacia el comedor para presenciar las actuaciones de los alumnos/as de primaria, a los cuales habiamos sido invitados y así gozar de los disfraces y coreografias realizadas por andereños, maixus y alumnos/as, eskerrik asko*







## Santa Zezilia, Olentzeroa, Agate Deuna eta inauteriak LHn

Dakizuen bezala, gure ikastolan ohiturak eta jaiak ospatzen saiatzen gara.

Azaroaren 22an, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleekin batera Santa Zezilia eguna ospatu genuen. Abenduaren 20an, ikastolako azken egunean, Olentzeroa etorri zen bertara eta hau agurtu eta gero 1. mailatik 6.era gabon ekitaldi bat eskaini genuen jantokian. Abenduaren 24an, Kultur Elkartekoek, 5. eta 6. mailako ikasleekin batera Gasteizko Olentzeroaren desfilean parte hartu genuen.

Urte berri honetan ere zenbait ospakizun izan ditugu. Otsailaren 4ean, urtero bezala, Haur Hezkuntzako ikasleekin Agate Deuna Eguna ospatu genuen, euria zegoelarik, Alberdiko Aretoan. Azkenik, otsailaren 28an inauteriak ospatu genituen ikastolan. 1. eta 2. mailako ikasleek desfile txiki bat egin zuten Haur Hezkuntzako pasabidetatik eta hauekin batera jantokira joan ginen. Bertan Lehen Hezkuntzakoek dantza eta abestiekin jai handi bat eskaini genuen.

*Como ya sabéis, en nuestra ikastola nos gusta celebrar las tradiciones y fiestas.*

*El 22 de noviembre, con la ayuda de nuestros alumnos/as de 5º y 6º de Primaria celebramos la festividad de Santa Cecilia. El 20 de diciembre, último día de la ikastola, nos visitó el Olentzero y con motivo de ello, entre todos los alumnos/as de Educación Primaria celebramos una fiesta en el comedor. El 24 de diciembre, la Asociación Cultural junto con los alumnos/as de 5º y 6º participamos en el desfile del Olentzero de Vitoria-Gasteiz.*

*Este nuevo año también hemos tenido varias fiestas. El 4 de febrero Primaria junto con Infantil celebramos la festividad de Santa Agueda, esta vez en el Areto de Alberdi ya que fue un día pasado por agua. Por último, el 28 de febrero celebramos los carnavales. Los alumnos/as de 1º y 2º hicimos un pequeño desfile por los pasillos de Infantil y todos juntos subimos al comedor donde, una vez más, entre bailes y canciones, celebramos una auténtica fiesta carnavalera*





# DBH ETA BATXILER

## Batxiler 1go maila Tuboplastera

Teknologia mintegiak antolatu zuen bisita dela eta, Bat 1A ko ikasleak otsailean,TUBOPLAST enpresa ikustera joan ziren. Miñano Parke teknologikoan kokatuta dagoen enpresa honek plastikoaren lanketan oinarritzen du bere lana, tresneriarik modernoena erabiliz. Ikasleek planta berria ezagutzeko aukera izan zuten , baita enpresa handi batek egiten duen lana gertu ikusteko e

*Los alumnos/as de Bat 1 A visitaron en febrero la empresa TUBOPLAST , dentro de las actividades que organiza el departamento de Tecnología. Esta empresa situada en el Parque Tecnológico de Miñano se dedica a la fabricación de plástico, sirviéndose de una tecnología más moderna. Los alumnos/as tuvieron la oportunidad de visitar la nueva planta y también de conocer más de cerca el proceso de trabajo de una gran empresa.*





## DBH 4.mailakoak Katedrala bisitatzera

Dbh 4 mailako ikasle guztiak Santa Maria katedralaren birmoldaketa sakonki ezagutzeko antolatzen den bisita gidatua egitera joan ziren. Bertan, Santa Maria Katedraleko Fundazioaren gideen laguntzaz, egiten ari diren lanak ikusteko aukera izan zuten. Honekin batera, hain gertu dugun monumentuaren historiari buruz informazio ugari lortu zuten.

*Los alumnos/as de 4º de ESO visitaron la catedral de Santa María con motivo de los trabajos de restauración de ésta. Allí, con la ayuda de las guías de la Fundación Catedral de Santa María, tuvieron la oportunidad de contemplar los trabajos que se están realizando. Además, pudieron aprender algo más sobre la historia de este monumento tan cerc*

## DBH 4. mailakoak antzerkira

Lengua eta Literatura mintegiaren eskutik, gure ikasleek ekintza berezi bat izan zuten antzerki munduaren inguruan. Oraingo honetan ez zuten ikuslearen papera bete, benetako antzezle eta teknikari bihurtu ziren. "Peer Gynt", Henrik Ibsenek idatziriko antzezlana, oinarritzat hartuz, ikasle bakoitzak funtzio ezberdina bete behar zuen: zuzendaritza, antzezleak, teknikariak (soinua, argia, eskenografia, jantziak,...). Antzerki mundua barru-barrutik ezagutzeko ekintza ezin hobea!

*Los alumnos/as de 4º de ESO realizaron una salida especial alrededor del mundo teatral, dentro de las actividades organizadas por el departamento de Lengua y Literatura. No tuvieron que representar el papel de espectador, se convirtieron en auténticos actores y técnicos. Tomando como base la obra "Peer Gynt" de Henrik Ibsen, cada alumno/a tenía que representar un papel diferente: dirección, intérprete, técnico (luces, sonido, escenografía vestuario,...). ¡Una actividad excepcional para conocer este mundillo desde dentro!*

## DBH 2. Gotikoa

DBH 2. mailako ikasleak otsailean musika eta arte irakasleekin San Pedro elizara joan ziren. Bisitaren helburua, eliza honetan dagoen organoa ikustea zen. Baten batek, Bachen omenz edo, jo ere egin zuen! Honekin batera, Gotikoarekin zerikusia duen guztia aztertzeko aukera ezin hobea izan zuten tetuinguru aproposenean.

*En febrero los alumnos/as de 2º de ESO acudieron junto con sus profesoras a la iglesia de San Pedro. EL objetivo de la visita era conocer el órgano de esta iglesia. Alguno que otro, en honor a Bach, ¡hasta llego a tocar!. Con todo ello, gozaron de una buena oportunidad para poder conocer el arte gótico en un contexto inigualable.*

## NIREKIN EUSKARAZ

Euskara Batzordeak ikastolan euskararen erabilera bultzatzeko kanpaina berria antolatu zuen "Nirekin euskaraz" lelopean. Ikasleek euskara erabiltzearen konpromisoa hartu behar izan zuten. Sinadurak eta pegatinak protagonistak izan ziren lau egunez.

*La Comisión de Euskara organizó una nueva campaña para potenciar el uso del euskara en la ikastola bajo el lema “Nirekin Euskaraz”. Los alumnos acepataron el compromiso de hablar únicamente en euskara. Las firmas y las pegatinas fueron protagonistas durante cuatro días*

# OLABIDE KIROL ELKARTEA

Bazkide agurgarriok:

Olabide Kirol Elkartea Olabide ikastolako kirol sekzioa da, non bertako ikasleek kirol jarduera bat egin dezaten bultzatu nahi den. Jarduera hau ikasleek disfrutatzeko, partehartzeko, euskera erabiltzeko eta denaren gainetik gure ikasleen garapen pertsonal hobe bat ekar lezaketen balore eta aspektu hezigarri batzuk hartzeko dela deritzogu.

Olabide Kirol Elkartetik eta gure jardueren bitartez laguntasun jarrerak, kirolean nahasturiko pertsonei ( arerioak, entrenatzaileak, epaileak, taldekideak,ikusleak ) errespetua, esfortzuaren aurreko jarrera, sufrimendua eta beste hainbat balore, kirolaren bidez garatu ahal direnak sustatu nahi dira.

Oso garrantzitsua deritzogun eta igorri nahi dugun baloreetariko bat konpromisoarena dugu. Pertsona batek, ikasturte hasieran jarduera batetan izena ematen duenean bere taldearekiko betebehar batzuk onartzen ditu, hauek errespetatu behar dituelarik taldearen funtzionamendua egokia izan dadin.

Segur aski, entrenamendu eta partidetara joateko konpromisoa dugu betebehar garrantzitsuenetarikoa, are gehiago talde kirol bat izanez gero, baten emaitzak besteen emaitzarekin erlazionatuta baitago. Talde kirolek klima egokia izatea eskatzen dute ( kirol jarduerekin bilatu nahi dugun laguntasun eta adiskidantza aspektuak bultzatu nahi badira ) honetarako taldekide ezberdinen arteko interakzioa oso garrantzitsua da eta hauek duten errespetu, konpromiso eta seriotasun maila aintzakotzat hartu behar da.

Gure ustez behin jarduera batetara apuntatuz gero partehartzaileak entrenamendu saio eta partidetara joateko konpromisoa hartzen dute eta hori bete egin behar da. Salbuespen logiko batzuk daudelarik (gaixotasun, lesio, familia konpromiso garrantzitsuak,...).

Denok ulertzen dugu ikasketak oinarrizkoak direla, are gehiago ikastola batetan, baina beste alde batetatik gure ustez ikastolaz kanpoko jarduerak ez daude ikasteko orduekin kontra emanean. Gure ustez bietarako denbora dago: ikasteko, jokatzeko, lagunekin egoteko,... azterketa garaian ere. Honegatik, ikasleek beraien denbora antolatu behar dutela deritzogu beraiek erabaki eta konpromisoa duten toki guztietara heldu ahal daitezen. Modu honetan bultzatzen egongo garen gazteak, arduradunak, konpromisoa dutenak eta serioak izango dira. Emandako hitza edo hartutako konpromisoa aurrera eramateko gai direnak, sakrifikatzeko gaitasuna dutelarik, baita antolatzeko eta planifikatzeko gai direnak (beraien denbora administratuz eta banatuz) eta azkenik beraien taldekideak errespetatzeko ahalmen edo gaitasuna dutenak. Denak dira talde baten partaide eta denek uneren batetan sakrifikatu egin beharko dira bai entrenamendu eta partida batetara joateko. Ez joate horrek, aurrekoen kalitatean murrizketa bat suposatuko luke, talde errendimenduaren hondatzea suposatuz.

Beste alde batetatik ez dugu uste zigor moduan ikasleek gogokoen dituzten kiroletan aritzen ez uztea irtenbide egokia dela. Guk ulertzen dugu kirola, ez bakarrik aisialdi momentu bat bezala, baita toki hezitzaile bezala non aspektu hezitzaile asko garatzen diren. Ondorioz ez dugu ulertzen nola gurasoek beraien seme alabak, zigor moduan, hezitzailea eta osasungarria den jarduera bat egiten ez dieten uzten. Gure seme alabak zigor bezala ez ditugu matematiketako edo ingeleseko klase partikular gabe uzten, hauen balore hezitzaileak ez ditugulako zalantzan jartzen. Beste alde batetatik esan beharra dago gure ustez berdina egin beharko genukeela kirol jarduerekin, hauek ere dituzten balore hezitzaileak, berdinak edo baliagarriagoak direla deritzogulako.

Lehen azpimarratu dugun moduan entrenamendu eta partidetara ez joateak, talde dinamikan arazoak ekartzen ditu. Honen ondorioz ,zuek gurasoek, garrantzia handia duzue egoera hauek ez daitezen eman. Honegatik Olabide Kirol Elkartetik eskatu nahi dizuegu zuen seme alabaren eta bere taldearen mesederako, ez zigortzea ahal izanez gero lehenago aipatutako zigor horiekin eta zuen seme alaba entrenamendu eta partidetara faltatzen bada, bai ikazketagatik edo beste edozein gai justifikatu gabea, animatzea, motibatzea eta ikustaraztea urte hasieran hartutako konpromisoak betetzeak duen garrantzia. Modu honetan denon artean erresponstsabilitate handia duten pertsonak garatzen eta hezitzen egongo gara.

Helburu bat dugu: gure seme alaben heziketa. Heziketa hau arlo guztietan eta sentsu guztietan izan behar delarik, ez bakarrik akademikoan.

Espero dugu idatzi honek gure baitako hausnarketa bat eragitea, eta bide batez agur bat bidaltzeko baliatzen gara.



Estimados socios/as:

Olabide Kirol Elkartea es la agrupación deportiva de Olabide Ikastola, y desde ésta, se pretende que los alumnos/as de la Ikastola que opten por realizar una actividad deportiva, tengan una actividad en la que premie el disfrute, la participación, la utilización del euskera y sobre todo, la adquisición de una serie de valores y aspectos educativos que posibiliten un mejor desarrollo personal de nuestro alumno/a.

Desde Olabide Kirol Elkartea y a través de nuestras actividades intentamos fomentar actitudes de compañerismo, de respeto hacia los agentes implicados en el deporte (contrarios, árbitros, entrenadores, propios compañeros, espectadores), de esfuerzo y sacrificio y de otros muchos valores que se pueden desarrollar a través del deporte.

Uno de los valores que creemos más importante a desarrollar y a trasmitir es la del compromiso. Una persona al apuntarse a comienzo de curso a una actividad o un deporte adquiere una serie de obligaciones con el equipo o grupo al que pertenece, que tiene que respetar si se pretende que el funcionamiento del grupo sea el adecuado.

Posiblemente, la asistencia a entrenamientos y partidos sea uno de los puntos más importantes dentro de las obligaciones de los participantes, y más aun si se trata de un deporte de equipo, en el que el resultado de uno depende directamente del resultado del otro. Los deportes de equipo necesitan de la interacción de los unos y de los otros y la existencia de un buen clima de equipo (aspecto este del compañerismo y la amistad que tanto se da y buscamos con la práctica deportiva de nuestros hijos/as) depende de todos y cada uno de los integrantes del equipo y, por lo tanto, del compromiso y seriedad que puedan demostrar cada uno de los participantes.

Entendemos que los participantes, una vez se han comprometido a comienzo de curso, han de asistir a todos aquellos entrenamientos y partidos, exceptuando lógicamente todos aquellos en los que exista alguna causa justificada (enfermedad, lesión, compromiso familiar importante...).

Todos entendemos que los estudios son primarios y más aun en un centro escolar, pero también entendemos que las actividades extraescolares no están reñidas en tiempo para los estudios. Creemos que existe tiempo para todo: para estudiar, para jugar, para tener tiempo de ocio con los amigos, para... incluso en época de exámenes y, es por esto que, entendemos que los alumnos/as han de organizar su tiempo de forma que puedan llegar a todos sitios, a todo aquello con lo que tienen un compromiso, como son los estudios, son las actividades extraescolares o pueden serlo también los amigos. De esta forma estaremos promoviendo unos jóvenes responsables, con sentido del compromiso y seriedad por cumplir con aquello que habían prometido a principio de curso; con capacidad de sacrificio, pues suponemos que deberán realizar un gran esfuerzo y deberán de sacrificar algún momento de ocio para poder asistir a todos estos lugares en los que tienen adquirido un compromiso; con capacidad de organización, de tal forma que sean capaces de administrarse "su" tiempo y reservar un espacio para cada una de esas cosas con las que tiene que cumplir y con sentido del respeto hacia los compañeros, pues todos y cada uno de ellos son parte del equipo y todos estarán realizando un esfuerzo en ciertos momentos por asistir a los entrenamientos y a los partidos y el no asistir a éstos merma la calidad de los mismos, con el consiguiente deterioro del rendimiento del equipo.

Por otra parte, no creemos en aquellos castigos que consistan en impedir que los alumnos/as realicen la práctica de su deporte favorito. Entendemos que el deporte no sólo es un lugar de esparcimiento, sino también, y como ya hemos comentado, un lugar educativo, un lugar en el cual desarrollar un gran número de aspectos educativos, y por lo tanto, no entendemos cómo se puede castigar a un chico/a con la supresión de una actividad saludable y educativa. Así como no tendemos a castigar a nuestros hijos/as con la supresión de las clases particulares de matemáticas o inglés, pues no dudamos de su valor educativo, deberíamos hacer lo mismo con una actividad, la deportiva, que tiene tanto o más valor educativo.

Además, y como ya se ha comentado, el no asistir a los entrenamientos o a los partidos, perjudica seriamente la dinámica del grupo o del equipo y, por lo tanto, como creemos que vosotros como padres, tenéis una gran importancia y responsabilidad en que esta situación no suceda, os solicitamos desde Olabide Kirol Elkartea que, por el bien del equipo y de vuestro hijo/a, por una parte, intentéis evitar castigos de este estilo y por otra, en el caso de la falta a entrenamientos y/o partidos por tema de estudios u otras causas no justificadas, animéis, motivéis y hagáis ver a vuestros hijos/as la necesidad e importancia de cumplir con los compromisos adquiridos, pues de esta manera contribuiremos entre todos a formar personas con un gran sentido de la responsabilidad.

Tenemos un reto: la educación de nuestros hijos/as, pero la educación en todos loa ámbitos y en todos los sentidos, no sólo en el académico. Creemos que la educación no se resume exclusivamente a aprobar o sacar una buena nota académica. Creemos que es mucho más que eso.

Esperando que estas líneas nos hagan reflexionar, aprovechamos también para enviarles un saludo.

Olabide Kirol Elkarteko koordinatzaileak

# OLABIDE KULTUR ELKARTEA

Beti bezala hemen gaude berriro ere aurten 300 haur ditugularik gure betiko ekintzetan parte hartzen: Abesbatza, Txistu, Dantza, Lenguaia Musikala, Musikari Hasiera eta Antzerkilaritza. Guzti hau aurrera eramateko 15 begirale ditugu eta dakizuenez ere, ekitza bakoitzeko guraso arduradun bat dugu beti laguntzeko prest.

Dena den, aurten gauza berri batzuk sartu ditugu: ostegun eguerdietan bertsolaritza daukagu DBHko ikasleentzat eta honetaz gain, perkusioari hasiera emateko bi tailer antolatu ditugu 1. eta 2. hiruhilabetetan ere.

Jakingo duzuenez ere helduentzako ekintzak antolatzen hasi gara. Abesbatzakoak ostiraletan elkartzen dira Musika Gelan (19.30tik 20.30etara): 20 lagun daude guraso, irakasle eta langileen artean. Bestalde dantza taldekoak ditugu, bertan 14 dantzari ditugu eta astelehenetan elkartzen dira (19.30tik 20.30etara). Badakizue, norbait animatzen bada, aukera duzue oraindik. ANIMA ZAITEZTE!!!

Azkenik izango ditugun ekintza batzuen berri ematen dizuegu:

* Apirilaren 6an Dantzarien Eskolarteko Topaketa ospatuko da Gasteizen.
* Maiatzaren 1etik 4ra gure abesbatzako umeek Murgian topaketa bat izango dute Gasteizko beste abesbatza guztiekin. Egonaldi hau kontzertu batekin bukatuko dute igande eguerdian Murgian bertan.
* Maiatzaren 11 eta 18an ikastolako jaunartzeak izango dira Seminarioan. Bertan gure dantzari, txistulari eta abeslariek parte hartuko dute.
* Maiatzaren 17an Arabako Haur Abesbatzen Eguna ospatuko da Printzipal Antzokian.

Ekintza gehiago ere izando ditugu baina honen berri aurrerago emango dizuegu.

Como siempre, aquí estamos otra vez. Este año tenemos 300 alumnos/as participando en nuestras actividades habituales: Coro, Danza, Txistu, Iniciación a la Música y Dramatización. Para llevar a cabo todas estas actividades tenemos la ayuda de 15 monitores/as y de un padre-madre responsable de cada actividad.

De todas formas, este curso hemos introducido varias cosas nuevas: por un lado los jueves al mediodía tenemos bertsolaritza para los/as alumnos/as de E.S.O. y también hemos organizado unos talleres de iniciación a la percusión durante el primer y segundo trimestre.

Como ya sabréis también, hemos introducido actividades para adultos. El coro se reúne los viernes de 19.30 a 20.30 en la Clase de Música: tenemos 20 amigos/as entre aitas, amas, profesores/as y trabajadores/as. Por otro lado, están los "dantzaris" que son 14 y se reúnen los lunes de 19.30 a 20.30. Ya sabéis donde estamos así que si alguien se anima....

Por último, os informamos de algunas de las actividades que tendremos los próximos meses:

* 6 de abril: se celebrará el Certamen Interescolar de Danzas en Vitoria-Gasteiz
* Del 1 al 4 de mayo todos las escolanías de Alava se concentrarán en Murguía para trabajar en varias obras que interpretarán el domingo al mediodía en un concierto común en Murguía mismo.
* El 11 y el 18 de mayo se celebrarán las comuniones de la Ikastola en el Seminario y allí estarán nuestros dantzaris, txistularis y el coro.
* El 17 de mayo se celebrará en el Teatro Principal el Día Coral Infantil de Alava.

Tendremos más actividades pero os informaremos más delante de todas ellas.

Olabide Kultur Elkarteko koordinatzailea




Aitor Eraña
bat. 2. maila

## SORGINBERRI

Kortezubin ama eta alaba bat bizi ziren. Bazuten morroi bat ere baserri lanetanlaguntzeko.

Ostiral gauero, bi emakumeak bere soinekorik onenak jantzi, arretaz orraztu eta etxetik irtetzen ziren.

Behin, dantzaldi batera joan behar ziren, baina beraiek zeukaten karroza urratu egin zen. Pentsatzen hasi ziren nola konponduko zuten arazoa eta albak ikastolan ikasitako IDEAL teknikari ekin zion. Lehenengo identifikatu... Gero, irtenbide batzuk aurkitu zituen, baina beste aldetik, beraiek zeukaten morroia azti bat zen, eta amak eta alabak ez zekiten. Aztiak, telepatiaren bidez, alabari, honako irtenbidea sartu zion buruen:

-Deitu ezazu telefonoz, Sorgin Berri lineara. Beriek baitakite arazoaren konponbidea. Hauxe da zenbakia: 902202122

Alabak bere amari horixe proposatu zion eta bera konforme zegoela esan zuen. Telefono zenbakia markatu eta horrela erantzun zuten:

-Ongi etorri Sorginberri lineara. Arazo bat konpundu nahi baduzu, pultsa ezazu 1. Sorginberrirekin hitz egin nahi baduzu, pultsa 2. Entzuten ari zaren hizkuntza aldatzeko pultsa 3. Amaitzeko pultsa #.

Alabak 1 sakatu zuen eta hauxe esan zuten:

-Kaixo! Marta nauzu, zertan behar duzu laguntza?

-Bada, begira, karroza hondatu egin zait eta ez dakit nola konpondu dezakedan- esan zuen alabak.

-Bai, hemen daukat erantzuna- esan zuen Martak.

-Zein da?- galdetu zuen alabak.

Hiru kolpe emaizkiozu karrozaren motorrari eta martxan jarriko da.

-Eskerrik asko, agur!- esan zuen alabak.

-Agur. Eskerrik asko gure zerbitzua erabiltzeagatik!!!

Alabak Martak esandakoa egin zuen. Karroza derrepentean jarri zen martxan eta bertara igo ziren ama eta alaba.

Azkenean ailegatu egin ziren dantzaldira, pixkat berandu, baina hobe da berandu inoiz ez baino.

Gonzalo Yarza
DBH 1

## NIRE BIHOTZA HUTSIK

Norbaitek hustu dit bihotza
eta ez dakit nor den.
Duela urte batzuk ezagutu nuen norbait
izango da.
Nire bizitzaren bihotza
zuk poztasuna ematen didazu.
Poztasun gabeko
gartzelan nago.
Ez dakit zer gertatzen zaidan
baina oso itsusia izan beharko du
Goibel nago nire lagunik
onena galtzeagatik
joan zen eta ez nuen berriro ikusi
Poztasunez bete ninduen
Lorea zen.

Ana Pérez
DBH 4B




Uxue
HH